Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

# ALKATETZAREN EBAZPENA, 1.221 ZENBAKIKOA
# RESOLUCION DE LA ALCALDIA Nº 1221

**Gaia: 2016PORD0003 espedientea, Irungo ZARATAREN MAPARI buruzkoa. Ekintza Plana. Jendaurrean jartzea**

**En relación con el expediente 2016PORD0003 relativo al MAPA DEL RUIDO de Irun. Plan de Acción. Exposición pública.**

**Egitateak**

**Resultando los siguientes hechos:**

**-Alkatetzaren 2017ko maiatzaren 8ko Ebazpenaren bidez, honako hau erabaki zen:**

**-Mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 8 de mayo de 2017, se acordó:**

*1. Kutsadura akustikoaren inguruko ekintza plana formulatzea, Irungo zarata mapari dagokionez, zeina Alkatetzaren 2016ko abenduaren 5eko ebazpen baten bidez onetsi zen.*

*1º.- Formular el Plan de Acción en materia de contaminación acústica correspondiente al Mapa de Ruido de Irun, aprobado por Resolución de esta Alcaldía de fecha 5 de diciembre de 2016.*

*2. Herritarrek parte hartzeko prozesua onestea eta hasieran proposatutako plana Udalaren web orrian argitaratzea, 30 egun baliodunean komenigarri deritzen ohar eta iritziak aurkezteko aukera izan dezan herritar orok.*
*Era berean, Udal Plangintzako Aholku Kontseiluaren barruan emango da informazioa.*

*2º.-Aprobar el proceso de participación ciudadana mediante la publicación en la página web municipal del Plan inicialmente propuesto para que en el plazo de 30 días hábiles, el público en general pueda presentar las observaciones y opiniones que tengan por conveniente.*
*Asimismo se informará en el seno del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico.*

*3. Ebazpenaren gorputzak aipatzen dituen entitate eta administrazioei kontsulta egitea, beren eskumenen arabera egoki deritzotenari buruz txostena egin dezaten 30 egun baliodunean.*

*3º.-Consultar para que emitan informe sobre lo que estimen conveniente de acuerdo con sus competencias, las entidades y administraciones reseñadas en el cuerpo de la Resolución, en el plazo de 30 días hábiles.*

- Udalaren web orrialdean argitaratu da herritarrek parte hartzeko prozesua.

-Se ha publicado en la pág. Web municipal, el proceso de participación

- Udal Plangintzako Aholku Kontseiluari Ekintza Planaren berri eman zaio, 2017ko maiatzaren 24ko bileran.

- Txostenak eskatu zaizkie honako hauei:

- **Gipuzkoako Foru Aldundia Bide Azpiegituretako Departamentua**
- **Gipuzkoako Foru Aldundia Ingurumen Departamentua**
- **ADIF**
- **ETS Euskal Trenbide Sarea**
- **Eusko Jaurlaritza Ingurumen Sailburuordetza Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila**

**Argudioak**

- **ADIFek** txosten bat helarazi du (e/16.646), *entitate horrek Ekintza Planaren kontrako alegazioak aurkezteari beharrezko ez deritzola eta haren edukiari egoki deritzola* dioena.

- **ETS Euskal Trenbide Sareak** (18.258), berriz, gogorarazi du, zaratari buruzko legediak xedatzen duenez, ondorio akustikoei buruzko azterketa bat behar duten bizitegi garapen berrietan, *trenen zirkulazioari dagokionez, unean uneko zirkulazioaz gain,* ***etorkizuneko zirkulazioa (bidaiariena eta salgaiena)*** *ere hartu behar duela kontuan azterketak. Bada, aurreikuspenak Udalaren esku daude dagoeneko, trenen zortasun eremuari erantsitako oroitidazkiarekin batera helarazi baitzitzaizkion (Eusko*

ciudadana.

-Se ha dado cuenta del Plan de Acción al Consejo Asesor de Planeamiento en su reunión de fecha 24 de mayo de 2017.

-Han sido solicitado informes a:

- **Diputación Foral de Gipuzkoa Dpto. de Infraestructuras Viarias.**
- **Diputación Foral de Gipuzkoa Dpto. de Medio Ambiente.**
- **ADIF.**
- **ETS – Eusko Trenbide Sarea**
- **GOBIERNO VASCO Viceconsejería de Medio Ambiente Dpto. de Medio Ambiente. Política Territorial y Vivienda**

**Considerando los siguientes hechos:**

-Se ha recibido Informe de **ADIF** ( e/ 16.646) en el que se manifiesta que *esa entidad no estima necesario presentar ninguna alegación al Plan de Acción, estimándose su contenido positivamente.*

-Por su parte, **ETS** ( 18.258), viene a recordar que tal y como se recoge en la legislación sobre ruido, que en los nuevos desarrollos residenciales en los que se debe incorporar un estudio de impacto acústico, dicho estudio *en lo que a tráficos ferroviarios se refiere, debe contemplar no sólo los actuales sino también los* ***tráficos ferroviarios (viajeros y mercancías) a futuro,*** *ya remitidos a dicho consistorio en la memoria que acompañaba a la Zona de Servidumbre Acústica del ferrocarril ( carta de la*

*Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren zuzendariaren gutuna, 2015eko ekainaren 5ekoa).*

*Directora de Infraestructuras del Transporte del Gobierno Vasco, de fecha 5 de junio de 2015.*

Gainera, dioenez, *Ekintza Planaren beraren arabera, beharrezkoa da trenbideetatik 75 m-ra baino gutxiagora kokatzen diren hirigintza garapen berrien gaineko bibrazioak aztertzea, etorkizuneko zirkulazioa kontuan hartuta.*

Asimismo señala tal y *como se recoge en el Plan de Acción, la necesidad de realizar análisis de vibraciones en los nuevos desarrollos urbanísticos que se sitúen a menos de 75m de una línea ferroviaria, contentemplando, al igual que en el caso anterior, las circulaciones previstas a futuro.*

**Diziplina-Jarduerak Unitate Teknikoko buruak txosten tekniko bat egin du, zera dioena: berez, idazkiak ez dira alegazioak ez ekarpenak, baizik eta Ekintza Planari buruzko zehaztapen eta iruzkinak.**

Se ha emitido al respecto **informe técnico por el Jefe de la Unidad Técnica de Disciplina de Actividades, en el que se señala que los escritos no constituyen propiamente alegaciones ni aportaciones sino más bien comentarios o precisiones al Plan de Acción.**

**Horrenbestez, herritarrek eta erakundeek parte hartzeko jarritako dokumentua baliozkoa da onartzeko, ez baita egin aldaketarik.**

**En consecuencia, el mismo Documento sometido a participación pública e institucional resulta válido para el trámite de aprobación al no haberse incorporado modificaciones.**

- **Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren** 18. eta 19. artikuluekin bat, kontsulta egiteko eta herritar eta erakundeek parte hartzeko fasearen ondoren, onartu aurretik, **jendaurrean jarri behar da dokumentua, hilabetez.** Ildo horretatik, EHAAn eta GAOn iragarkia argitaratu behar da, nahi duen pertsona fisiko edo juridiko orok dokumentazioa azter dezan, eta iragarkiak dokumentazioa erakusteko lekua eta alegazioak aurkezteko epea adierazi behar ditu.

-De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18 y 19 del **Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de Contaminación Acústica,** tras la fase de consultas y participación ciudadana e institucional, procede someter el Documento, previamente a su aprobación, **a un trámite de información pública por el plazo de un mes.** A tal efecto se anunciará en el BOPV y BOG a fin de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar la documentación existente. El anuncio deberá señalar el lugar de exhibición de la documentación y determinará el plazo para formular alegaciones.

Ayuntamiento · Udala
irun
www.irun.org

Espedientea osatzen duen dokumentazioa ikusita, zera

A la vista de la documentación obrante en el expediente

EBATZI DUT:

HE RESUELTO

1. *Irungo ZARATA MAPAREN inguruko EKINTZA PLANA jendaurrean jartzea, hilabetez, iragarkiak argitaratuta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, nahi duen pertsona fisiko edo juridiko orok dokumentazioa azter dezan*
*Udal bulegoetan kontsultatu ahalko da dokumentazioa, Kostorbe eraikinean (Iparralde hiribidea z.g.), baita Udalaren web orrialdean ere.*
*Azken iragarkia argitaratu eta biharamunean hasiko da epea.*

1º.-*Someter al trámite de información pública el PLAN DE ACCION del MAPA DE RUIDO de Irun, por plazo de un mes mediante publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y Boletín Oficial del País Vasco a fin de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar la documentación existente.*
*La documentación podrá consultarse en las oficinas municipales sitas en el edificio Kostorbe, Avda. Iparralde s/n y en la página web municipal.*
*El plazo empezará a contar a partir del dia siguiente a la última publicación.*

Irun, 2017ko uztailak 12 / Irun, 12 julio de 2017.

ALKATEA / EL ACALDE

IDAZKARI NAGUSIA
LA SECRETARIA GENERAL,

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN